



LEHENDAKARITZAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN 5/2021 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU- PROIEKTUARI BURUZKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA

22/2023 LT - LGAKZ
DNCG_DEC_4605/22_01

I. AURREKARIAK

Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak izenburuan adierazten den dekretu-proiektuari buruzko legezkotasun-txostena igor dezagula eskatu digu.

Espedientean, txosten-eskaerarekin batera, jarraian zehazten dugun dokumentazioa dago:

- Dekretu-proiektuaren testua (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektuaren justifikazio-memoria, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak izenpetua (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Lehendakariaren urriaren 5eko 19/2022 Dekretua, dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Dekretu-proiektuaren memoria ekonomikoa, Zerbitzu zuzendariak izenpetua (gaztelaniaz).
- Lehendakariaren urtarrilaren 24ko 3/2023 Dekretua, dekretu-proiektua egiteko prozedura aldeztetik onartzen duena (euskaraz eta gaztelaniaz).

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



- Txosten juridikoa, ekimena sustatzen duen Lehendakariaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak igorria (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Antolaketa-txostena, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak igorria (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena (gaztelaniaz).
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (euskaraz).

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorritz igortzen da:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a) artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikorena (11.1 eta 2 a) artikulua)
- 18/2020 Dekretua, irailaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (7.1 i) artikulua).
- 8/2021 Dekretua, urtarrilaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (15.1 c) artikulua)

II.LEGEZKOTASUN-AZTERKETA

1.- Izapidetzea

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorreko izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren uztailaren 15eko 6/2022 Legean jasotako izapideak bete beharko ditu, 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Dekretu-proiektua bi hizkuntza ofizialetan idatzita dago, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrenbestez, 6/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritako hizkuntza-berdintasunaren printzipioa bete egiten da, baita lege horren 14.5 artikuluan xedatutakoa ere.

Espedientean hasierako agindua eta aurretiazko onespren-agindua jasota daude, biak ere ekimena sustatzen duen Lehendakariak izenpetuak. Hortaz, bete egiten da 6/2022 Legearen 13. eta 15.1 eta 2 artikuluetan ezarritakoa. Hala ere, espedientean ez dago jasota lege horren 15.3 artikuluan xedatutako arau-eraginaren azterketaren nahitaezko memoria. Instrukzio-fasea amaitzeko, aipatutako memoriak gain, gure txostena egin ondoren, kontrol ekonomikoko txostena ere sartu beharko da espedientean.

Bestalde, Dekretu-proiektua antolamendu-xedapen bat denez, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, entzunaldiaren eta jendurreko informazioaren izapidetik salbuetsita dago.

Halaber, amaierako onarpena egin baino lehen, memoria labur bat, 6/2022 Legearen 24. artikuluan xedatutako edukiarekin, sartu beharko da espedientean.

Azkenik, dekretu-proiektuaren testuak errespetatu egiten ditu Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23ko bilkuran onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak.

2.- Proiektuaren xedea

Dekretu-proiektuaren helburua Lehendakaritzaren egitura zenbait aldaketa egitea da. Aldaketen xehetasunak honako hauek dira:

- Lehendakaritzaren egitura egokitzea, organo batzuen izena aldatu eta zuzendaritza bat ezabatuz.
- Gazteria arloa Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari esleitzea. Izan ere, Lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretuak Lehendakariaren 6ko 18/2022 Dekretua aldatu zuen eta Gazteriaren jardura-arloa Lehendakaritzan sartu zuen.
- Euskadiren Frantziako Ordezkaritza egitura-dekretuan sartzea. Ildo horretatik, abenduaren 28ko 258/2021 Dekretuaren bidez, Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortu eta arautu zen.
- Koordinazio eta Gizarte-Komunikazioko Idazkaritza Nagusiari eginkizun berriak esleitzea prospekzio soziologikoaren arloan.
- Zuzendaritzei funtzio berri bat esleitzea.

3.-Proiektuaren edukia

Dekretu-proiektuak azalpen-zatia, hamaika artikuluz osatutako xedapen zatia eta azken xedapen ditu.

Artikuluei dagokienez, bat egiten dut Lehendakariaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzaren txosten juridikoak esandakoarekin, azterketa zehatza egiten baitu.

III. ONDORIOAK

Horrenbestez, adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diot legezkotasun-azterketara aurkeztu diguten dekretu-proiektuari.

Hori da igortzen dudana txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.